

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

774/2025 Erabakia, abenduaren 16koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea alokairu sozial edo babesturako etxebizitzak birgaitzeko Araba(n) Bizi Bedi Programako dirulaguntza lerroa ebazteari, zeina Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 22ko 451/2025 Erabakiaren bidez deitu baitzen

Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 22ko 451/2025 Erabakiaren bidez, onespena eman zitzaion alokairu sozial edo babesturako etxebizitzak erosteko eta birgaitzeko Araba(n) Bizi Bedi Programako dirulaguntzen 2025eko deialdiari. Deialdi hori 2025eko uztailaren 28ko ALHAOn (84. zk.) argitaratu zen.

Dirulaguntza hauen xede nagusia da toki erakundeak finantzatzea, etxebizitzak edo beste higiezin batzuk erosteko eta birgaitzeko, alokairu sozialeko edo babestuko araubideko etxebizitzetarako erabil ditzaten.

Deialdi honek diruz lagundu daitezkeen lerro hauek ditu:

a) Alokairu sozial eta/edo babesturako etxebizitzak eskuratzea, betiere bitartekaritza publikoarekin.

b) Etxebizitzak eta/edo zuzkidura bizitokiak birgaitzea, gazteak alokairu erregimenean emantzipatzen laguntzeko. Zuzkidura bizitokiaren kasuan, lehendik bizitegi erabilera ez duten higiezinak baino ez dira onartuko.

c) Alokairu sozial eta/edo babesturako etxebizitzak birgaitzea, betiere bitartekaritza publikoarekin.

Ebazten ari den lerroan, norgehiagoka prozedura da dirulaguntzak emateko metodologia, eta ezarritako aurrekontu esleipenarekin ezin badira diruz lagundu aurkeztutako eskaera guztiak, lagunduko diren jarduketak hautatzeko, dirulaguntza jaso dezakeen eta aurkeztu den eskaera bakoitza baloratuko da eta puntuazio bat emango zaio. Horrela, eskatutako jarduketak ordenatu ahal izango dira, eta lehentasun ordenari jarraituko zaio dirulaguntza esleitzeko. Lerro honetarako deialdiaren saldoa 1.375.000,00 euro da, eta aplikatuko diren balorazio irizpideak deialdiaren zazpigarren oinarrian jasotakoak dira.

Manu horiek eta oinarrietan eta deialdian ezarritako betekizun guztiak kontuan hartuta, Balorazio Batzordeak aurkeztu diren eskaerak aztertu ditu, eta txosten bat egin du, non zehazten baita eskaera horien betetze mailaren emaitza eta lortutako puntuazioaren arabera lehentasun hurrenkera, bai eta dirulaguntzak ebazteko eta dirulaguntza esleipen bakoitzean diruz lagundu beharreko zenbatekoen proposamena ere.

Aurkeztutako eskaeren xehetasunak eta haiekin aurkeztutako aurrekontuak, bai eta eskaeren balorazioaren emaitza ere, I. Eranskinean jaso dira.

2025eko azaroaren 20an, Balorazio Batzordeak akta bat egin zuen deialdiaren ebazpena proposatzeko, xedapen zatiaren lehenengo eta laugarren apartatuetan jasotakoaren arabera.

Horrenbestez, txostena aztertuta eta Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailako foru diputatuaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onestea dirulaguntzetan guztira 1.375.000,00 euro ematea II. eranskinean zehaztutako erakundeei, alokairu sozial edo babesturako etxebizitzak birgaitzea finantzatzeko.

Bigarrena. Tokiko erakunde onuradun bakoitzari ordainketa izenduna egingo zaio. Era honetan ordainduko dira dirulaguntzak:

— Zenbateko osoaren ehuneko 80, Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko titularrak dirulaguntzak emateko ebazpena eman ondoren, 2025eko abenduaren 31 baino lehen, eta toki erakunde onuradunak obra lizentzia edo hura legez ordeztzen duen dokumentua aurkeztu ondoren. Zenbateko hori 2025. urtean esleitu eta xedatu da.

— Gainerako ehuneko 20a, onuradunek lehen ehuneko 80ari lotutako gastuen eta ordainketen justifikazioa aurkeztu ondoren, baina ez 2026ko urtarrilaren 1a baino lehen. Zenbateko hori 2026. urtean esleitu eta xedatu da.

Hirugarrena. Obrak eta/edo ekipamendua 2026ko irailaren 30a baino lehen gauzatu beharko dira erabat, eta 2026ko urriaren 30a baino lehen justifikatu.

Laugarrena. III. eranskinean zehaztutako eskaerak ukatzea, hartan adierazten diren arrazoiengatik.

Bosgarrena. Ebazpen honi lotutako gastuaren xedapena 1.375.000,00 eurotan kontabilizatzea, Arabako Foru Aldundiaren 2025erako aurrekontuko 10202. G/920102/76290107 "Araba(n) Bizi Bedi Programa. Alokairua" partidan: 1.100.000,00 euro 2025. urtean eta 275.000,00 euro 2026. urtean.

Seigarrena. Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikulua 1. apartatuaren b) letran xedatutakoarekin bat etorritik, lehia libreko prozeduraren ebazpena ALHAOn argitaratuko da eta argitalpenak jakinarazpen ondorioak izango ditu.

Zazpigarrena. Ebazpen hau behin betikoa da administrazio bidean, eta beronen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu daiteke Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, administrazio egintza honen bidezko jakinarazpena jaso ondorengo egunetik aurrera, bat etorritik jurisdikzio hori arautzen duen uztailaren 13ko 29/1988 Legeak 46. artikuluan ezarritakoarekin. Hala ere, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio egintza eman duen organoari, hilabeteko epean, administrazio egintza honen bidezko jakinarazpen jaso ondorengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko abenduaren 16a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatua

LAURA PÉREZ BORINAGA

Lurralde Orekaren zuzendaria

JAVIER GORBEÑA GARCÍA

I. ERANSKINA

AURKEZTUTAKO ESKAERAK

ESPEDIENTEA	ESKATZAILEA	IFZ	AURKEZTUTAKO AURREKONTUA	DIRUZ LAGUNDU DAITEKEEN AURREKONTUA
01352003-2025/00001	Añanako Udala	P0105500C	28.595,60	28.595,60
01352003-2025/00002	Asparreneko Udala	P0101000H	1.453.020,58	659.280,00
01352003-2025/00003	Zalduondoko Udala	P0107000B	1.621.249,62	571.200,00
01352003-2025/00004	Urkabustaizko Udala	P0106200I	53.549,94	53.549,94
01352003-2025/00005	Bernedoko Udala	P0101700C	400.000,00	400.000,00
01352003-2025/00006	Antoñanako AB	P0100195G	1.298.547,80	565.040,00
01352003-2025/00008	Villanueva de Valdegoviako AB	P0100077G	17.174,62	17.174,62
01352003-2025/00009	Okondoko Udala	P0104500D	81.290,93	77.520,00
01352003-2025/00010	Axpuruko AB	P0100012D	134.612,74	134.612,74
01352003-2025/00011	Izoriako AB	P0100173D	30.644,48	30.644,48
01352003-2025/00012	Korresko AB	P0100046B	149.108,42	0,00
01352003-2025/00013	Laguardiako Udala	P0103300J	323.897,39	0,00
01352003-2025/00014	Fresnedako AB	P0100254B	67.117,43	67.117,43
01352003-2025/00015	Barrioko AB	P0100204G	193.610,53	164.900,00
01352003-2025/00016	Gaubeako Udala	P0106300G	370.017,52	143.450,00
01352003-2025/00017	Laudioko Udala	P0103800I	28.605,57	14.302,79

ESKAEREN BALORAZIOAREN EMAITZA

Erakundea	Herrigunea	Proiektuaren heldutasun egoera			Δ Alokairuaren prezioa		Alokairu unitateak			Despopulazioaren arrisku maila		Etxebizitza eskatzen duten erroldatutako		GUZTIRA
		Oinarrizko proiektua	Gauzatze proiektua	Δ Batez best	Puntuak	Etxebizitzak herrigunean	Unidades nuevas	Unitate berriak	Puntuak	Puntuak	Pertsona kopurua	Puntuak	Puntuak	
GAUBEAKO UDALA	Villanueva de Valdegovía	0	20	2,39%	12,64	173	3	12	12	12	15	10	10	66,64
ASPARRENEKO UDALA	Araia	0	20	2,39%	12,64	831	7	12	12	5	25	10	10	59,64
ANTONANAKO AB	Antofana	0	0	2,39%	12,64	129	6	20	12	12	18	10	10	54,64
BERNEDOKO UDALA	Bernedo	0	0	2,39%	12,64	167	6	20	7	8	10	10	10	50,64
BARRIOKO AB	Barrio	10	0	2,39%	12,64	23	1	5	5	12	15	10	10	49,64
KORRESKO AB	Korres	0	0	2,39%	12,64	44	1	5	20	20	16	10	10	47,64
LAGUARDIAKO UDALA	Laguardia	10	0	2,71%	14,32	1197	2	5	5	5	33	10	10	44,32
LAUDIOKO UDALA	Laudio	0	0	2,14%	11,28	9020	2	5	5	8	584	20	20	44,28
FRESNEDAKO AB	Fresneda	0	0	2,39%	12,64	32	1	5	5	15	15	10	10	42,64
ZALDUONDOKO UDALA	Zalduondo	0	0	2,39%	12,64	133	5	20	8	8	0	0	0	40,64
OKONDOKO UDALA	Irabien	0	0	3,79%	20,00	383	1	5	5	5	24	10	10	40,00
IZORIAKO AB	Izoria	0	0	3,79%	20,00	74	2	5	5	5	30	10	10	40,00
VILLANUEVA DE VALDEGOVIAKO AB	Villanueva de Valdegovía	0	0	2,39%	12,64	173	1	5	12	12	15	10	10	39,64
AXPURUKO AB	Axpuru	0	0	2,39%	12,64	29	1	5	5	20	4	0	0	37,64
AÑANAKO UDALA	Gesaltza Añana	0	0	2,39%	12,64	205	1	5	12	12	3	5	5	34,64
URKABUSTAIZKO UDALA	Izarra	0	0	2,39%	12,64	689	1	5	5	5	47	10	10	32,64

II. ERANSKINA

DIRULAGUNTZAK EMATEA

ESPEDIENTEA	ESKATZAILEA	IFZ	DIRUZ LAGUNDU DAITEKEEN AURREKONTUA	DIRULAGUNTZAREN EHUNEKOA	AURREKONTUAREN ARABERAKO DIRULAGUNTZA	MODULUEN ARABERAKO DIRULAGUNTZA	DIRULAGUNTZA
01352003-2025/00016	Gaubeako Udala	P0106300G	143.450,00	ehuneko 75 + ehuneko 10	121.932,50	240.000,00	121.932,50
01352003-2025/00002	Asparreneko Udala	P0101000H	659.280,00	ehuneko 75 + ehuneko 10	560.388,00	560.000,00	560.000,00
01352003-2025/00005	Bernedoko Udala	P0101700C	400.000,00	ehuneko 75 + ehuneko 10	340.000,00	480.000,00	340.000,00
01352003-2025/00015	Barrioko AB	P0100204G	164.900,00	ehuneko 75	123.675,00	80.000,00	80.000,00
01352003-2025/00017	Laudioko Udala	P0103800I	14.302,79	ehuneko 50 + ehuneko 10	8.581,67	80.000,00	8.581,67
01352003-2025/00014	Fresnedako AB	P0100254B	67.117,43	ehuneko 75 + ehuneko 10	57.049,82	80.000,00	57.049,82
01352003-2025/00003	Zalduondoko Udala	P0107000B	672.000,00	ehuneko 75 + ehuneko 10	571.200,00	400.000,00	207.436,01 (*)

(*) Zalduondoko Udalaren 01352003-2025/00003 espedienteari 400.000,00 euroko dirulaguntza dagokio, baina zenbateko horrekin birgaitze lerrorako deialdiaren gehieneko aurrekontu esleipena gaindituko litzatekeenez, egokitu egin da eman beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa, eta era-bilgarri dagoen gehienekoa emango zaio (207.436,01 euro).

III. ERANSKINA

UKATUTAKO ESKAERAK

ESPEDIENTEA	ESKATZAILEA	IFZ	ARRAZOIA
01352003-2025/00006	Antoñanako AB	P0100195G	Eskaerak ez ditu betetzen deialdiaren betekizunak (lizentzia eskatu aurretik aurkeztu da eskaera)
01352003-2025/00012	Korresko AB	P0100046B	Eskatutako jarduketa ez da alokairu sozial eta/edo babesturako etxebizitzak birgaitzeko lerroan diruz laguntzeko modukoa
01352003-2025/00013	Laguadiako Udala	P0103300J	Ez da egiaztatu birgaitu beharreko higiezinaren titulartasuna
01352003-2025/00009	Okondoko Udala	P0104500D	Aurrekontu esleipena agortu da
01352003-2025/00011	Izoriako AB	P0100173D	Aurrekontu esleipena agortu da
01352003-2025/00008	Villanueva de Valdegoviako AB	P0100077G	Aurrekontu esleipena agortu da
01352003-2025/00010	Axpuruko AB	P0100012D	Aurrekontu esleipena agortu da
01352003-2025/00001	Añanako Udala	P0105500C	Aurrekontu esleipena agortu da
01352003-2025/00004	Urkabustaizko Udala	P0106200I	Aurrekontu esleipena agortu da